



2023ko maiatzaren 9a

DURANGOKO UDALERRIAK GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUEI EGITEN DIEN EKARPENAREN TXOSTENA **LABURPEN EXEKUTIBOA**



DURANGO
Udala • Ayuntamiento



DURANGO
Garena eginez. Vivir y convivir

Txostenaren idazketan lagundu dute:

DURANGOKO UDALA:

- Ima Garrastatxu (Alkatea)
- Aritz Bravo (Lurraldea batzordearen Presidentea)
- Iker Urkiza (Antolakuntza batzordearen Presidentea)
- Aitor Larrucea ("Durango 2030 eraikiz" prozesuko arduradun teknikoa)
- Maria Villar (Gizarte Ekintza)
- Argiñe Larreategi (Gizarte Ekintza)
- Juan Antonio Atutxa (Euskara)
- Laura Vallejo (Kultura)
- Elixabete Txurruka (Kultura)
- Ander Álvarez (Gazteria)
- Ana Ugarriza (Eskola kontseilua)
- Kety Arrabal (Berdintasuna)
- Verónica Redondo (Etorkinak)
- Igor Zorrakin (Hirigintza)
- Amaia Solozabal (Ingurumena)
- Asier Guisasola (Obrak, Argiteria, Ura)
- Iñigo Andrés (Obrak, Argiteria, Ura)
- Patricia Etxenagusia (Udal eraikinetako mantenua)
- Aintzane Bengoetxea (Udal eraikinetako mantenua)
- Asier Bikandi (erakunde autonomoak)
- Iñaki Inza (Durango Kirolak)
- Natalia de Naveran (Turismoa eta Merkataritza)
- Iraide Zugazaga (Kontratazioa)
- Silvia Martín (Kontratazioa)
- Teresa Oleaga (Idazkaritza)
- Jokin Palacio (Kontu-hartzailetza)
- Amaia Frontaura (Udaltzaingoa)

DURANGOKO MERINALDEAREN AMANKOMUNAZGOA:

- Iker Pérez (Agenda 2030)
- Augusto Uriarte (Hondakinen bilketa)
- Maria Jesús Ormaetxea (Durangaldeko Behargintza)
- Eider Arostegi (Gizarte Zerbitzuak)

URKIOLA LANDA GARAPENERAKO ALKARTEA:

- Juan Mari Totorika

DURANGOKO ELKARTEAK

- Txostenaren I. Eranskineko parte-hartze prozesuan parte hartu zuten eragileak aurki daitezke.

Laguntza teknikoa: Izadi 21 eta Laia Koop. Elkarte Txikia:

- Edurne Simón Urio
- Aitor Gonzalez Calvo
- Judith Arrondo Aizpuru
- Leire Garmendia Olano
- Rosa Aurkia Zapiain
- Beatriz Álvarez Ferrero

AURKIBIDEA

TESTUINGURUA	5
1. GJH: POBREZIA DESAGERRARAZTEA	6
2. GJH: GOSERIK EZ	7
3. GJH: OSASUNA ETA ONGIZATEA	9
4. GJH: KALITATEZKO HEZKUNTZA	14
5. GJH: GENERO BERDINTASUNA	16
6. GJH: UR GARBIA ETA SANEAMENDUA	18
7. GJH: ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA	20
8. GJH: LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA	22
9. GJH: INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA	24
10. GJH: DESBERDINKERIAK MURRIZTEA	27
11. GJH: HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK	29
12. GJH: EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUA	34
13. GJH: KLIMAREN ALDEKO EKINTZA	36
15. GJH: LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA	39
16. GJH: BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK	42
17. GJH: HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA	44
18. GJH: HIZKUNTZA ETA KULTURA ANIZTASUNA	46

TESTUINGURUA

Durangoko Udalak ibilbide luzea egin du garapen iraunkorraren alde, baina aurrera egiten jarraitzeko beharra ikusi du, eta urrats sendoak eman nahi ditu tokiko politikatik Garapen Iraunkorreko Helburuak (Nazio Batuek 2015ean onartutako helburuak) eta Agenda 2030 globala lortzen laguntzeko. Horregatik, 2022an, Udala 2030erako ibilbide-orri bat diseinatzeko urratsak ematen hasi zen, **“Durango 2030 eraikiz” izeneko parte-hartze prozesuaren** bidez. Ibilbide-orri hori 2030 Agendaren tokiko ekintza-plana izango da, eta Durangoko udalerrirako 2030 urterako helburu estrategikoak eta ekintzak jasoko ditu.

Baina ekintza-plan hau diseinatu aurretik, Udalak Durangoko egungo egoera aztertu du, orain arte Durangoko udalerririk Garapen Iraunkorreko Helburuei egin dien ekarpena zein izan den jakiteko eta, ondorio horietatik abiatuta, 2030era arte indarrean egongo den ekintza-plan bat egiteko oinarri sendoak ezartzeko.

Aipatzekoa da **Udalak Durangoko herritarren, elkarteen, ikastetxeen, udal-langileen eta eskualdeko beste eragile batzuen laguntza izan duela, hala nola Durangaldeko Mankomunitatearena eta Urkiola landa-garapenerako elkartearena**. Horretarako, 2022aren amaieran, Udalak gaikako elkarrizketak antolatu zituen Durangon dauden sektore ezberdinetako eragileekin, eta handik ekarpenak bildu zituen, aipatutako ekarpen-txostenaren edukia aberasteko. Udalak "Durangoko udalerririk Garapen Iraunkorreko Helburuei egiten dien ekarpenari buruzko txostena" izeneko dokumentuan sartu ditu ekarpen horiek, eta aipatu txostena 2023ko martxoaren 22an jendaurrean aurkeztu zen. Era berean, ekarpen horiek kontuan hartuko dira ekintza-plana lantzerako orduan.



1.



HELBURUA

Pobrezia mota guztiak desagertaraztea.

HERRITARREN EGOERA SOZIO-EKONOMIKOA


Herritarren ekonomia-baliabideei begiratzuz gero, eta zehazki, errenta pertsonalari dagokionean, Durango gainontzeko lurraldeekiko egoera ekonomiko hobean kokatzen dela ikusten da, Bizkaiko bataz-bestekoarekin alderatuz 2.600 €-ko aldea egonik, eta eskualdeko errentaren datuarekiko 1.900 €-ko aldea baitago. Gainera, Errenta pertsonalaren bilakaera gorakorra da eta 2011-2020 artean %17 batean igo da

Gizarte Larrialdiko Laguntzak jasotzen dituzten bizikidetz-unitateen kopurua begiratzuz badugu, Durangoko tasa beste lurraldeekiko baxuagoa dela ikusiko dugu. Hala ere bilakaerari begiratzuz joera gorakorra dela esan daiteke, 2011an 3,17-ko tasa baitzen.

Udalerrian badira gizarte ekintzan, garapenerako lankidetzan eta egoera ekonomiko eta sozial larrian aurkitzen diren herritarren beharrei erantzuten lan egiten duten hainbat elkarte: Elikagaien bankua, Caritas Durango, La Otra Mirada, JAED, Garabide, Suargi, Asoc. Cultural de M'Lomp.

EGOERA ZAURGARRIAN DAUDEN PERTSONENTZAKO ESKAINTZEN DIREN BALIABIDE ETA ZERBITZUAK

Udaleko gizarte zerbitzuen sailean oinarritzko gizarte zerbitzuek gizarte-premiei modu integralean erantzuten dieten gizarte-sustapeneko eta -ekintzako zerbitzuak eta prestazioak eskaintzen dituzte, bazterkeria-, mendekotasun- eta/edo babesgabetasun-arriskuan dauden pertsonak antzeman eta artatuz.



Irudia: JAEDen zozketa solidarioaren kanpaina

2.



HELBURUA

Gosea amaitzea, elikagai-segurtasuna eta elikadura hobea lortzea eta nekazaritza jasangarria bultzatzea.

LANDA EREMUEN GARAPENA

Durangok ez du izaera landatarrik eta hori argi ikusten da nekazaritza eta arrantza sektorearen balio erantsi gordinaren ehunekoa beste lurraldeekiko baxuagoa delako.

Lehen sektorean 47 ustiategi erregistraturik badaude ere, bertatik bizi diren **2 ustiategi daude soilik Durangon** (Iturria: Urkiola Landa Garapen Elkarteak).

EKOIZPEN EKOLOGIKOA eta BERTAKO PRODUKTUEN KONTSUMOAREN SUSTAPENA.

Orohar elikagai produktuen ekoizle gutxi daude herrian eta zehazki **ekoizpen ekologikoa egiten duen ustiategirik ez dago Durangon**.

Merkatu Plaza dago herrigunean, handizkako merkatua, herritarrek kalitateko produktuak eros ditzaten. Urtero bezala, uda heldzearekin batera Euskadiko hainbat tokitan Udako Azoka Ekologikoak antolatzen dira eta horietako bat Durangon izaten da. Udal mailan, **2021ean, Merkatu Plazarako Diseinu Estrategikoa jarri zen abian**.

“Jatorrian dago helmuga” kanpaina ere aipagarria da (durangaldea.elikadura.eus) . Eskualdean ekoizten diren produktuak bertako kontsumitzaileen artean sustatzeko eta saltokiak babesteko helburuarekin jarri zuten martxan Urkiola landa garapen elkarteak eta eskualdeko ekoizleek, eta dagoeneko 2 ekitaldi antolatu dira.

ELIKADURA OSASUNTSUA, ELIKAGARRIA.

Eskualde mailako **“Berton bertokoa”** ekimenean aktibo lan egiten dute Durangoko hainbat guraso-elkartek (<https://bertonbertokoa.eus> da plataforma). Elkarte hau eskoletako jantokietan seme-alabei ematen zaien elikadura-kalitateaz arduraturik dauden Durangaldeko hainbat ikastetxetako gurasoek osatzen dute.

UDAL JARDUERA ETA PLANGINTZA

Eskualde mailan, Durangaldeko landa garapeneko proiektuak bultzatzeko eta gizarte ehuna landa garapeneko jardueretik sentikor bilakatzeko lan egiten duen elkarteak da **Urkiola Landa Garapen Elkarteak**. Elkarteak gaur egun eskuartearen dituen plan eta jarduerak hauek dira: **Elikadura komunitateak sortzeko Plan estrategikoa (2018) eta honen baitan “Elikatu Durangaldea” proiektua, “Abian” eta “Hazinnova” programak**. Udaleko Gazteria sailak **“Suk**

2.



HELBURUA

Gosea amaitzea, elikagai-segurtasuna eta elikadura hobe lortzea eta nekazaritza jasangarria bultzatzea.

Aldatu” programa du abian: merkatu plaza dinamizatzeko eta haurtzarotik elikadura osasungarria sustatzeko

3.




HELBURUA

Guztiontzako eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea.

HERRITARREN OSASUN EGOERA

Herritarrek bizi diren eremu edo auzoko ezaugarri sozioekonomikoak (heziketa maila, klase soziala, errenta...) eragina dauka pertsonen osasunean ere (MEDEA indizearen arabera): Egoera onean aurkitzen da Durangoko auzoen gehiengoa eta **erdiguneko San Ignazio, Muruetatorre, Ibaizabal, Kurutziaga eta San Roke** egoera oso onean. **Aldiz, San Fausto, Juan Itziarko eta Aramotz** auzoak egoera txarrean daude (5 indizea), egoera txarrean Lariz eremua (4. Indizearekin) eta tarteko egoera batean Geltoki ingurua (3. Indizearekin).



Iturria: Geoeuskadi. Eusko Jaurlaritza

ADINEKOEN ETA MENPEKOEN ZAINITZA

Adineko pertsonentzako egoitzetan dagoen plaza kopurua % biztanleko 32koa da, beste lurraldeetan ematen den datuen azpitik kokatuz.

Eguneko-zentroetan dauden plaza kopuruari begiratzean alderantziz, datuak beste hiru lurraldetako tasen gainetik kokatzen dira. **2005-2020 urteen arteko bilakaerari so egiten badiogu egoitzetako plaza kopuruak eta eguneko-zentroetakoak gora egin du.**

JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA eta KIROL EKIPAMENDUAK

Kirol kultura txertatuta dago Durangoko herritar askoren bizi ohituretan. Kirol elkarteek jarduerak garrantzi itzela du Durangon. Jarduera fisikoa sustatzeaz gaiz, bizi ohitura osasuntsuen sustapenean lan egiten dute eta onura handia ekartzen diete Durangoko herritarrei.

3.




HELBURUA

Guztiontzako eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea.

Kirol zerbitzuei dagokionean Instalazio publiko ugari daude Durangon: LANDAKO KIROL GUNEA, LANDAKO II KIROLDEGIA, ARRIPAUSUETAKO ZELAIK, TABIRA KIROL GUNEA, TABIRAKO ZELAIK, EZKURDI PILOTALEKUA ETA SAN FAUSTO PILOTALEKUAK eta ATLETISMO PISTA.

Gazteria eta kirol sailaren helburu nagusia haur, gazte eta kirolarien autonomia eta garapen pertsonala indartzea da.

KIROL INSTALAZIOEN ERABILTZAILEEN BILAKAERA
(2013-2021)



Fuente: Ayuntamiento de Durango

MUGIKORTASUN OHITURAK, AZPIEGITURA ETA ZERBITZUAK

2010eko Mugikortasun diagnostikoaren arabera Durangoko oinezkoen barne-mugikortasuna zertxobait suspertzen hasita zegoen, **auto pribatuaren presentzia nabarmena da. Ibilgailuen parkeak %20ko hazkuntza erakusten zuen azken 6 urtean.** Biztanleko ibilgailu parkea 0,57 ibilgailu/biztanlekoa da 2021an, datu hau eskualdea eta Bizkaia mailakoa baino baxuagoa izanik

Durangoko 16 urtetik gorako herritarren gehiengoak udalerritik kanpo egiten ditu lanerako (%73,65) zein ikasketako (%70,07) jarduerak, datua eguneratuta ez badago ere. Hau da, **herritik kanpora geroz eta gehiago mugitu behar dira herritarrek lanera edo ikastera joateko.**

3.



HELBURUA

Guztiontzako eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea.

Nahiz eta auto kopuruak gorantz doazen, **Durangon beste lurraldeekin alderatuz trafiko-istripu gutxiago erregistratu dira eta gainera urtetik urtera trafiko istripuak gutxituz doaz.**

2022an eskolako bidearen ekimena berrikusi zen, Lehen-hezkuntza duten ikastetxe guztietara zabaltzeko. Helburua eskolarako joan-etorriak iraunkorrak, osasuntsuak, autonomoak eta seguruak izan daitezen bultzatzea izan zen.

Mugikortasunerako jarduerari dagokioenan Udalak **“Mugikortasun iraunkorraren 2010-2025 plana”**-rekin helburu estrategiko nagusiak ezarrita ditu.

Bestalde, **hirigunean 30 km/h eremua zabaltzen aritu da azken urteetan**, 2014-2019 urteetan 20 ha-ko eremua hartzetik, 27,19 ha-ra igaroz. 2020-2022 urteetan ere 30 km/h azalara udalerriko azaleratik %2,54tik %2,61ra igaro da (Iturria: Durangoko Udal iraunkortasun adierazleak).

Udalerri **barruko bidegorri sare zabala du Durangok, guztiz osatuta ez dagoen arre**. Udalerriko bidegorrien luzera 7 km-koa zen 2010ean eta 12,43 km-koa 2020an. Azken datuen arabera, 2022an 10.000 biztanleentzako 4,83 km-ko luzera du bidegorri sareak (Iturria: Durangoko Udal iraunkortasun adierazleak).

Udalak oinezkoen I. eta II. gune gisa izendatutako guneak kudeatzen ditu erdigunean.

AIREAREN KALITATEA, ZARATA ETA KUTSADURA ELEKTROMAGNETIKOA

San Roke kalean dagoen Airearen kalitatea zaindu eta kontrolatzeko Eusko Jaurlaritzaren sarearen estazioak neurtutako azken emaitzen arabera (2023 urtarrila) Durangoko **aire kalitatea ONA gisa sailka daiteke**.


Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzak **Durangoko airearen kalitatea kontrolatzeko kanpainak hasi zituen 2017ko lehen seihilekoan**, "usain txarrei" buruzko hainbat kexa jaso ondoren. Honela, inguruko industria-jardueren ezaugarriak eta inguruko haizearen norabide nagusiak kontuan hartuta, udalerriko bi puntutan (Pagasarri eta Tabira kaleak) egindako lau kanpainak (2017-2018) **bentzeno-tolueno-estirenoa igortzeko bi iturri nagusi hauteman dituzte: Durangoko udalerriko FUMBARRI eta FUNSAN galdategiak**. Geroztik, bi instalazioetan beharrezkoa da neurri zuzentzaileak hartzea.

3.



HELBURUA

Guztiontzako eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea.



Iturria: Durangoko Udal iraunkortasun adierazleak

Durangoko Udalak **Zarataren aurkako ekintza plana (2018-2022)** onartu zuen 2018 urtean. Zarata-maparen emaitzen arabera Durangoko biztanleen % 8,7k bere etxebizitzan erakusten du esposizio-maila horiek eguneko aldian kalitate akustikoaren helburuak gainditzen dituztela (kaltegarriagoa). Ez-betetze horretarako ekarpen handiena hiri-bideena da.



Irudia: Durangoko Zarata Planari dagokion guneen mapa (2018-2022). Durangoko Udala

2001. urtean azterketa sakon bat egin zen Kutsadura elektromagnikoaren gainean. Horren ondorioz ordenantza bat prestatu zen, baina hau osoko bilkuran onartzeko saiakerak kale egin

3.



HELBURUA

Guztiontzako eta adin guztietan bizimodu osasun-garria bermatzea eta ongizatea sustatzea.

dute. Bestalde, 2021eko otsailaren 24ko osoko bilkuran 5G antenak ipintzeko luzapen bat eskatu zen

GIZARTE EKINTZA ETA ZERBITZUAK

Udaleko oinarrizko gizarte zerbitzuek gizarte-premiei modu integralean erantzuten dieten gizarte-sustapeneko eta -ekintzako zerbitzuak eta prestazioak eskaintzen dituzte, Durangaldeko Durangaldeko mankomunitatearen bidez. Mankomunitateak 2020 urtean argitaraturiko zerbitzuen memoriaren arabera, Durangon guztira 579 espediente izapidetu ziren, hauetatik erdia menpekotasuneko balorazioak izanik eta % 22 telelaguntza zerbitzuari dagozkionak.

Adineko herritarrei zuzendutako hainbat udal zerbitzu, programa eta jarduera eskaintzen ditu: Adinekoen Udal Egoitza; Arreta psikoosialeko tailerrak; Etxez etxeko janari zerbitzua 80 urtetik gorakoentzat; Lagunkideren gizarte-boluntarioria; Suteak saihesteko zerbitzua; Taxilagun zerbitzua; Podologia zerbitzua; Jantokia; Etxebizitzaren hobekuntzarako eta irisgarritasunerako laguntzak; daltzaingoan giltzak gordetzeko zerbitzua, etab.

Nagusiak dinamizatzeko hainbat zerbitzu eskaintzen ditu: Durangaldeko Esperientzia Institutua (DEI) eta Menpekotasun egoeran dauden pertsonen senide zaintzaileentzako programa (ZAINDU PROGRAMA)

OSASUNAREN SUSTAPENA, EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK

Osakidetzak kudeatzen dituen 3 osasun zentro publiko: Durango-Landakoko Osasun Zentroa, Durangoko Eguneko Ospitalea eta Durangoko Osasun Mentaleko Zentroa.

Drogomenpentasunaren Prebentzio Zerbitzua eskaintzen zaie herritarrei Durangaldeko mankomunitatearen eskutik.

4.



HELBURUA

Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea.

HERRITARREN HEZKUNTZA-MAILA

Durangoko herritarren artean (10 urtetik gorakoak) Unibertsitate ikasketak burutakoen ehunekoa Bizkaia eta Erkidegoko ehunekoen azpitik geratzen da, zehazki 5,69 puntu beherago Bizkaiko datuekin alderatzen badugu.


Lanbide ikasketak eta Unibertsitate ikasketak gaingitu dituzten biztanleen ehunekoa bi kasuetan % 4ean igo da.

UDALERRIAN DAGOEN HEZKUNTZA FORMALAREN ESKAINTZA OROKORRA ETA MAILAREN ARABERAKO ESKAINTZA

Durangok adin tarte ezberdinetako herritarren hezkuntza bermatzen duen **hezkuntza-eskaintza zabala eta anitza** du: 2 haurreskola, Lehen Hezkuntzako 6 ikastetxe, Bigarren Hezkuntzako 5 ikastetxe, Batxilergoko 4 ikastetxe eta Lanbide hezkuntzako beste 4 ikastetxe.

Udalerriko ikastetxeetan eskolatutako ikasle kopuru osoak 2010-2017 bitartean gora egin bazuen ere (%5), geroztik **matrikulazioek joera beherakorra erakusten dute**.

Bestelako kolektiboak eta formakuntza behar ezberdinei zuzendutako eskaintza ondorengoa da: Hizkuntza Eskola, Durangoko Udal Euskaltegia, Helduen Heziketa Orokorra (DURANGO HHI), Bartolome Ertzila Musika Eskola eta Kontserbatorioa eta KIROLENE - Kirol irakaskuntzen ikastetxe publikoa.



Iturria: Durangoko Udala

4.



HELBURUA

Guztionezko kalitatezko hezkuntza inklusiboa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea.

UDALERRIAN DAGOEN HEZKUNTZA EZ FORMALAREN ESKAINTZA

Ludoteka, 5 eta 11 urte bitarteko umeentzat eskaintzen da. Bertan hainbat jarduera eta tailer egiten dira begirale espezializatuen laguntzarekin.

Durungaldeko mankomunitateak Behargintzaren garapen agentziaren bidez gazteen enplegarritasuna sustatzeko programaren eta lan-berri programaren baitan prestakuntza-eskaintza zabala du.

Urkiolako Landa Garapenerako Elkartetik lehen sektorean prestakuntza zehatza eskaintzen duten hainbat programa dituzte abian:

HEZKUNTZA SUSTATZEKO UDAL BALIABIDE ETA ZERBITZUAK

Herri-Hezitzailearen testuinguruan, **Durangoko Udala Oinherri eta HaurEkin sareetan integratu** da. Sare horien helburua da Durango hiria biztanle guztientzako leku hobea, demokratikoagoa, parte-hartzaileagoa, inklusiboagoa eta solidarioagoa bihurtzea.



Imagen: Proyecto Herri Hezitzailea

Eskolako Agenda 2030an programan parte hartzen dute udalerriko hainbat ikastetxek, Durungaldeko mankomunitatearen eta Eusko Jaurlaritzako Ingurugelaren laguntzarekin. 2022/2023 ikasturtean hezkuntza-programa honetan aktiboki parte hartzen ari diren ikasleak 1.194 dira orotara.

5.



HELBURUA

Genero berdintasuna lortzea eta emakume guztiak ahalduntzea.

EMAKUMEEN EGOERA SOZIOEKONOMIKOA

Biztanleen errentaren gainean aldea dago bi generoen artean, 2020an emakumeen errenta osoa gizonetzkoena baino ia 10.423 € baxuagoa izan baitzen (%34 baxuagoa). Errentaren bilakaeran bi generoen arteko aldea 2011 urtetik murrizten joan dela ikusi daiteke, aldea % 43,7ko izatetik, 2011an, % 34,8koa izatera, 2021ean.

2021 urtean Durangon %1,5 langabetu gehiago izan dira emakumeen artean.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA ETA HONI AURRE EGITEKO BALIABIDEAK

2021an, Abadiño, Berriz, Durango eta Elorrioko udalak, Durangaldeko mankomunitatea, Osakidetza eta Ertzaintzarekin bat eginda, "Indarkeriaren aurrean erakunde arteko koordinaziorako II. Protokoloa" zehaztu zuten. Protokoloaren baitan eginiko 2021eko memorian jasotako datuena arabera Durangon:

- **Jasandako indarkeria motari** begiratzen badiogu gehiengoa, 33 kasu, genero indarkeriagatik geratu ziren, 3 sexu erasogatik eta beste 3 indarkeria sexistagatik.
- **Erasotzailea bikotekidea edo bikotekide** ohia izan da kasuen % 78,6an eta gainerakoetan senide bat.
- **Erasotzaileen ia erdiak Europar Batasunetik kanpoko jatorria zuen** (% 48,8), % 18ak probintzian zuen jatorria eta % 16a udalerrian bertan.
- **Emakumeen % 46,1ak uko egin zien babes-neurriei eta % 10,3ak babes-neurri horiek eskatu zituen, baina ez lortu.**
- **Artatutako emakume gehienek (% 29) 31 eta 40 urte bitartean dituzte;** ondoren datoz 41-50 urte bitartekoak (% 24); jarraian 21-30 urte bitartekoak (% 19) eta 16 urtetik beherakoak.

UDALEKO PAREKIDETASUN POLITIKA eta UDALAK ESKAINTZEN DITUEN BALIABIDEAK ETA ZERBITZUAK

2005ean jarri zen abian **Berdintasun Batzordea**, Durangoko udalerrian berdintasun-politikak bultzatzeko helburuarekin. Ondoren, **Berdintasunaren Udal Kontseilua** sortzeko prozesuari ekin zitzaion.

Emakumeek udal gobernuan duen presentziari begiratzen badiogu, **udal gobernuaren parekidea** dela esan daiteke, 4 gizon eta beste 4 emakume baitira. Langileen artean ordea gizonak % 21 gehiago dira orohar.

5.



HELBURUA

Genero berdintasuna lortzea eta emakume guztiak ahalduntzea.

2022ko martxoko Udalbatzak onartu zuen **Durango Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana**.



Irudia: Berdintasun arloaren ekintzak jasotzen dituen programa. Durangoko Udala

Udalak Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko lan horretan hainbat zerbitzu eta programa eskaintzen ditu: ANDRAGUNEA, Jabekuntzarako ikastaroak, Topagunea, Beldur Barik programa, Durango Emakume izenekin kanpainarekin, aldarrikapen egunen ospakizuna,...

6.



HELBURUA

Ur horniduran eta saneamenduan eragin nahi du, baliabide hidrikoen kontrola eta kudeaketa jorratuz.

URAREN HORNIDURA

Durango 1999. urtean batu zitzaion Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari eta, egun, laurogeita hamazazpi udalerrik, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak osatzen dute. Ur Partzuergoa da lehen mailako sarea kudeatzeaz arduratzen den erakundea; gutxi gorabehera, Bizkaiko milioi bat biztanleren edateko uraren horniduraz eta hondakin uren saneamenduaz arduratzen da (industria-isurketen kontrola barne). Durangoko Udalak bigarren mailako hornidura- eta saneamendu-sarearen kudeaketa eta mantentzearen ardura du.

Durango Oiz mendiko lur azpiko urez hornitzen da eta Garaizarko Edateko Uren Tratamendurako planta (EUT) tratatu ondoren banatzen da. 2016an, Durangoko Udalak edateko uraren biltegi berri bat jarri zuen martxan Durangoko hegoaldean, hornidura-berme handiagoa izateko. Garaizarko Edateko Uren Araztegian hainbat analisi egiten dira ur-kalitatearen kontrol zorrotza aurrera eramateko. Aztertutako laginak egokiak dira parametro guztietan.



Irudia: Garaizarko EUT. Bilbao Bizkaia ur Partzuergoa

KONTSUMOA ETA UR-GALERAK:

Azken 3 urteetan ur-eskaria nabarmen jaitsi da, 2019-2022 urte bitartean ur-eskari osoa % 30,1 murriztuz.

6.



HELBURUA

Ur horniduran eta saneamenduan eragin nahi du, baliabide hidrikoen kontrola eta kudeaketa jorratuz.

Durango dauden sektore guztien ur-kontsumoari erreparatzen badiogu, 2001 urtetik 2022 urtera bitartean biztanleko kontsumoak behera egin du, nabarmen gainera. Izan ere, sektore guztien ur kontsumoa aintzat hartuz biztanleko kontsumoa 2001 urtean 301,8 litro/biztanle/egun zen bitartean, 2022 urtean 170,4 litro/biztanle/egun izan zen.

Etxeko ur-kontsumoak ere bilakaera gorabeheratsua islatzen du: 2010-2012 urte bitartean etxeko ur-kontsumoa paretsua izan da, ondoren, 2013-2019 bitartean 10-15 l/biz/egun jaisteko. Kalkulatutako azken urtean, **2020an, biztanleko etxeko ur-kontsumoak berriro gora egiten du (115 l/biz/egun, gutxi gorabehera), 2021 eta 2012 urteetako balioak berreskuratuz.** Bestalde, industria eta merkataritzaren ur-kontsumoak beheranzko joera orokorra islatzen du, 2010 – 2020 urte bitartean kontsumoa % 44,8 gutxituz. Hau ziurrenik, kontsumoaren eraginkortasuna hobetzearen eta jarduera ezberdinen ixtearen ondorio izan da. **Udalaren** (hau da, udal-jarduerari lotutako kontsumoa) **ur-kontsumoari erreparatuz gero, azkeneko urteetan beherakada handia gertatu da** (2017 urtean eta hortik aurrera batez ere), **bereziki udal-jarduera eta eraikinei lotutako kontsumoan.**

Ur-sarean ezarritako hobekuntzei esker, 2019 urtetik 2020ra galerak % 48,9 murriztu dira. Ur-galerak 651.556 m³koak izan ziren 2020 urtean.

SANEAMENDU-SAREA ETA ERREKA NAHIZ IBAIETAKO UREN KALITATEA:

Durango hondakin-urak Arriandiko araztegian tratatzen dira. Durango etxebizitza gehienak saneamendu sarera konektatuta daude.

Ur-masa naturaletan, lur gaineko urei lotutako ekosistema urtarren egituraren eta funtzionamenduaren kalitatearen adierazpen gisa definitzen den egoera ekologikoa ebaluatzea garrantzitsua da, eta bost kategoriatan sailkatzen da: oso ona, ona, moderatua, eskasa eta txarra. Ur Agentziaren jarraipen plataforman jasotzen den informazioaren arabera, **Durango zeharkatzen duen Mañaria erreken egoera moderatua da. Arripauseta zubiaren inguruko estazioan egindako analisiak Ibaizabal ibaiaren egoera eskasa dela islatzen dute.** Horretaz gain, **bai Mañaria erreken zein Ibaizabal ibaiaren natura-izaera oso eraldatuta** daudela islatzen dute urteroko txostenek.

Udalak kale garbiketako enpresaren bitartez urtero 2 ibai-garbiketa egiten ditu. Horretaz gain, herritarrekin ere ibai-garbiketa kanpainak antolatzen dira.



HELBURUA


Energia eskuragarria, segurua, iraunkorra eta modernoa izango dela bermatzea.

DURANGOKO ENERGIA-EGITURA OROKORRA ETA ENERGIA-KONTSUMOAK

Eskuragarri dauden azken datuen arabera (2020 urtea), udalerriko **energia-kontsumoaren gehiengoa (% 45) garraioaren sektoreari dagokio**, ondoren bizitegien sektoreari (% 24), hirugarren tokian industria-sektorea kokatuko litzateke (% 17) eta azkenik, zerbitzuen sektorea aurkituko genuke (% 14).

ENERGIAREN KONTSUMOA SEKTOREKA (2020)

■ Etxebizitzak ■ Zerbitzuak ■ Industria ■ Garraioa



Iturria: Udalsarea 2030en emugi tresna eta Energia eta Klimaren Ekintza-plana. Durangoko Udala

Erregaiei erreparatuz gero, gasolioa (diesela) gailentzen da erregaien kontsumoaren % 40 ordezkatuz eta datu horren atzean diesela darabilten motordun ibilgailuen energiaren kontsumoa dago (hala ere, badira gasolioa berokuntzarako erabiltzen duten zenbait etxebizitza eta establezimendu udalerrian). Bigarren tokian gas naturala kokatuko litzateke % 29arekin eta jarraian elektrizitatea, kontsumo osoaren % 25 hartuz. Azkenik, gasolina erabiltzen duten motordun ibilgailuen kasuan, kontsumo osoaren % 5 suposatzen dute eta zenbait etxebizitzetan nahiz zerbitzuetan berokuntzarako erabiltzen diren petrolioaren gas likidotuek kontsumo osoaren % 1 soilik ordezkatzen dute.

Energia-kontsumoaren bilakaera desberdina izan da udalerrian dauden sektoreei eta urteei erreparatuz gero. Etxeetako kontsumoari dagokionez, azken urteetako (2015-2020 aldia) kontsumo handieneko urtea 2018 izan zen. Etxeko energia-kontsumoa 1.016 kW/Bizt./urte da, EAEko batez bestekoaren azpitik (1.292 kW/Bizt./urte) kokatzen dena.

7.



HELBURUA

Energia eskuragarria, segurua, iraunkorra eta modernoa izango dela bermatzea.

UDAL JARDUERARI LOTUTAKO ENERGIA-KONTSUMOA

2018 urtetik 2020ra beherakada bat jasan zuen udalaren energiaren kontsumoak (udal eraikinetan egiten den kontsumoa, kaleko argiteriaren kontsumoa eta udal jabetzakoak diren ibilgailuen erregaien kontsumoa aintzat hartzen da bertan). **Udal eraikinetan kontsumitzen da energia gehien (udal kontsumoaren % 75, hain zuzen)** eta eraikinetan batez ere gas naturala erabiltzen da (kontsumoaren % 61).

ENERGIA BERRIZTAGARRIEN SORRERA:

Durango **ekoizpenaren % 86 biomasako eta geotermiako instalazioetan ekoizten da** (ekoizpenaren % 53 biomasari dagokio eta % 43 geotermiari). Durango Udalari dagokionez, energia berriztagarriak ekoizteko instalazio gehienak honako eraikinetan kokatuta daude: Landako kirolgunea (eguzki-energia termikoa), Landako eskola (eguzki-energia fotovoltaikoa), musika-eskola (eguzki-energia fotovoltaikoa), Laubideta 6 helbideko udal etxebizitzak (eguzki-energia fotovoltaikoa). Etorkizuneko instalazioei dagokionez, Udalak potentzialtasun-azterketa bat osatu du eta hauek dira **eguzki-energiaren instalazioak ezartzeko estalki erabilgarriaren azalera handiena duten eraikinak**: Landako gunea, Landako II kiroldegia eta Landako eskola (10 dira orotara potentzial handiena duten udal eraikinak).

UDALAREN ENERGIA-POLITIKA:

Udalak 2022 urtean idatzi zuen **Energiaren eta Klimaren Tokiko Plana** (2023an onartu da), eta **2018. urtea ezarri zuen helburu energetiko eta klimatikoaren lortzea neurtzeko oinarri-urte gisa** (helburu horietako baten xede da udalaren energia-kontsumoa gutxienez % 35 murriztea 2030erako). 2022an sortutako Energia Batzordea Udalaren organigramaren parte da, eta bere zeregin nagusia Plana urtero koordinatzea eta Lurraldeko Udal Batzordeari eta Udalbatzari ekitaldi bakoitzean garatu beharreko jarduerak proposatzea da. Plana 21 helburu estrategikok eta 61 ekintzek osatzen dute (22 ekintza klima-aldaketa arintzera bideratzen dira – horien artean daude udal-energiaren kudeaketari lotutako neurriak – eta 38 inpaktuetara egokitzeak dira).

8.



HELBURUA

Guztiontzako hazkunde jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, enplegu betea eta produktiboa nahiz lan duina sustatzea.

DURANGOKO ESTABLEZIMENDU ETA ENPRESEK UDALERRIAN SORTZEN DITUZTEN LAN AUKERAK


Durango zerbitzu-herria dela esan daiteke, bertan kokatutako establezimenduen % 37 merkataritza, garraioa eta ostalaritzari lotutako establezimenduak dira. **Establezimendu kopuruen beherakada bat egon da, zehazki 2013-2022 urteen artean**, 2022 urtean 94 establezimendu gutxiago erregistratuz

TURISMOA

Durango udalerriak **ondare arkitektoniko, natural eta kultural aberatsa du** eta Bulegoak eskaintza zabala jartzen du bisitarien eskura.

Durango **Turismoko Ekintza Plana 2022-2026** dokumentua onartu berri du Udalak. Dokumentu honek, datozen lau urteetako jardura-planak egiteko gida gisa balioko du.

TXIKITAZKO MERKATARITZA DENTSITATEAREN BILAKAERA
(2015-2021)



Iturria: Udalmap

MERKATARITZA ETA OSTALARITZA

Durango merkataritza establezimendu txikien gainbehera nabarmena da, 2015-2021 urteen artean 1.000 biztanleko tasak 2,41 puntutan egin baitu behera.

Dendak bai Durangaldeko Merkatarik elkarre da herriko merkataritza sendotzea helburu izan duen elkarre. Gaur egun 160 saltoki (merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak) baino gehiago dira ordezkatzeko dituenak. Dendak Bai elkarre eta Udalak **www.hemenbai.com** ataria sortu dute herriko dendarien eta ostalarien produktuak herriarren eskura ipintzeko.

Udalak 2022 urtean **Durango merkatu plaza berria eraikitzeko aurreproiektua** idatzi berri du.

8.



HELBURUA

Guztiontzako hazkunde jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, enplegu betea eta produktiboa nahiz lan duina sustatzea.

HERRITARREN BALIABIDE EKONOMIKOAK ETA LAN-BALDINTZAK

Durangoko 16 urte eta gehiagoko biztanleriaren okupazio-tasak ez du gorabehera handirik izan 2015 urtetik, 2021ean % 53,3koa izanik. Aldiz, 55-64 urte bitarteko biztanleen okupazio-tasaren bilakaera gorakorra da, 2021 urtean % 64,2an kokatuz. Bi kasuetan, okupazio-tasa 2021 urtean, Bizkaiko tasaren (% 48,59) eta EAEko tasaren (% 49,74) gainetik jarri da. Emakumeen okupazioa-tasa gizonen duten tasaren azpian kokatzen da, bien arteko aldea txikituz badoa ere.

Lanbiden erregistraturiko langabetuen bilakaera gorabeheratsua izan bada ere, joera beherakorra da, 2021ean langabeak biztanleria aktiboaren % 7,35 izanik, Bizkaiko (% 8,9) eta EAEko (% 8,24) tasen azpitik kokatzen da Durangoko langabezia-tasa.



Irudiak: Gaztedi Durangaldea hitzarmenaren baitan antolatutako zenbait ekimen. Durangaldeko Behargintza

ENPRESAK ETA KALITATEZKO ENPLEGUAK SUSTATZEKO PROGRAMAK ETA ZERBITZUAK

Durangaldeko Behargintza Durangoko Merindadeko Mankomunitateko eskualdearen garapeneko agentzia da eta bere jarduerak 3 ardatz nagusi dituzte: **langabeei laguntzea, enpresa berriak sustatzea eta enpresa-ehunarekin lankidetzan aritzea.**

Urkiola Landa Garapen Elkartek aldiz Durangaldeko landa garapeneko proiektuak bultzatzeko eta gizarte ehuna landa garapeneko jardueretik sentikor bilakatzeko lan egiten du. Durangaldeko Landa garapen programa (2015-2020) eguneratzeke dago.

DEK Durangaldeko Enpresa Ekimenak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak garatu duten “Durangaldeko Ekogarapen Gunea” proiektua ere nabarmendu beharra dago. Goi-mailako prestakuntza, ikerketa, ekintzailtza, sektore berriak eta negozio-aukerak batzen ditu.



HELBURUA

Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusiboa eta jasangarria bultzatzea, eta berrikuntza sustatzea.

INDUSTRIA-SEKTOREAREN EZAUGARRIAK:

Durangon kokatutako **establezimenduen % 3,4** industria sektoreari lotutako establezimenduez osatuta dago (**64 establezimendu**) eta industria-enpresa horiek sortutako **Balio Erantsi Gordina Durangon kokatuta dauden establezimendu guztien % 12,2** suposatu zuen 2020 urtean (69.903 milioi euro). Durangaldea eskualdeko datuei erreparatuz gero, urte horretan Durangoko industria-establezimenduek % 5,3ko ekarpena egin zioten eskualdeko industria-sektorearen Balio Erantsi Gordinari (eskualde mailan Abadiñon eta Amorebieta-Etxanon kokatutako industria-sektoreko enpresek Durangaldeko industriaren Balio Erantsi Gordinaren % 18,4 eta % 23,8 ordezkatzeko dute). **Industria-enpresa gehienak Metalaren azpi-sektoreari lotuta dauden jarduerak garatzen dituzte eta ondoren, makina-erremintaren sektoreari lotutakoak.**

Durangon **7 industria-gune** daude.

Atmosfera kutsatzen duten iturrien eta igorpenen estatu mailako erregistroan (Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikoaren Ministerioaren menpe dago) **Durango 4 enpresa** daude izena emanda: Montorretas, S.A., Jesús Oñate y Hermanos, S.A., Fundiciones San Antonio de Urkiola, S.L., Fundicios Fumbrarri, S.C.L. Gainera, enpresa horiek Ingurumen Baimen Bateratuaren jabe izan behar dira euren jarduera legeak ezarritakoarekin bat etorritzat garatzeko.

BERRIKUNTZARI BULTZADA:

Eskualdeko eragile-mota ezberdinen ekimenez eta horien parte-hartzeari esker, **Durangaldeko lehiakortasun gunea** martxan da. Gunea enpresek, Azterlan ikerketa-zentroak, Durangaldeko Mankomunitateak eta eskualdeko udalek osatzen dute besteak beste. Eskualdeko enpresa industrialei laguntzeko tresna bat da lehiakortasuna hobetzera bideratutako jarduerak garatzeko, bai banaka baita lankidetzan ere, eragile ezberdinen beharrak, planak lerrokatuz edo etorkizuneko proiektuak administrazio publikoek diseinatutako programekin eta/edo gainerako tokiko eragileen gaitasunekin lerrokatuz. Durangaldeko lehiakortasun guneak prestakuntza (jardunaldi teknikoan antolaketa, etab.) eta jakintzaren transferentzia, proiektuen sorkuntza eta horiek aurrera eramateko lankidetzaren sarea eta eskualde mailako diagnostikoen idazketa ahalbidetzen du. Aurrekoaz gain, Durangaldeko Mankomunitatearen baitan kokatzen den **Durangaldeko Behargintza** eskualdeko garapen-agentzia da eta bere egitekoen artean dago ekonomiaren garapenean berrikuntza bultzatzea; hala nola: proiektu berrietarako finantzazioa lortzen laguntzea eta berritzaileak izan daitezkeen ekimenei aholkularitza eskaintzea. Bere bulegoak Durangoko Elkartegian daude.

Bestetik, **Durangon kokatuta dago Azterlan Metalurgia Ikerketa Zentroa**. “Azterlan” metalurgian espezializatua dagoen irabazi-asmorik gabeko Zentro Teknologiko pribatua da eta bere egiteko nagusia metalurgiaren eta material metalikoen eraldaketa teknologietan alorrean




HELBURUA

Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusiboa eta jasangarria bultzatzea, eta berrikuntza sustatzea.

ikerkuntza- eta ezagutza-transferentzia burutzea da, eta baita ere balio gehitu altuko zerbitzuak eskaintzea industria metal mekanikoaren lehiakortasuna areagotzeko, enpresek in elkarlan estuan. Bere jarduera-lerroen artean aurkitzen da, besteak beste, ingurumenarekiko errespetuz jarduten duen industria garatzeko ikerketa-proiektuen garapena.

Durangaldeko I+Gko eskualdeko barne-gastua BPGren % 2,4 izan zen 2022an, Euskadiko batez bestekoaren (% 2,1) gainerik kokatuz eta baita Bizkaiko eskualdeen gainerik ere. Durangaldeko datua Euskadiko beste eskualdeekin alderatuz gero, gure eskualdea bosgarren tokian kokatzen da (Goierri, Debagoiena, Debabarrena eta Donostialdeko eskualdeen atzetik):

I+Gko barne-gastua BPGrekiko (%). 2022



Iturria: jarduera ekonomikoen direktorioa. Eustat

Bestalde, zientzia-ikerketako eta teknologiaren garapeneko jardueretara zuzenean atxikitako enpresetako langileei dagokionez, Bilbo Handia eta Donostialdea eskualdeak dira balio handienak dituztenak EAE mailan. Hor sartzen dira, enpresetan bai I+Gko jarduerak administratu



Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusiboa eta jasangarria bultzatzea, eta berrikuntza sustatzea.

eta zuzentzen dituztenak eta baita zuzenean I+Gko lanekin lotutako zerbitzuetan dihardutenak ere (adibidez, ikerketa-laborategi edo liburutegietako langile laguntzaileak, ikerketa-unitate edo zerbitzuetara atxikitako administrazio-langileak, behargin espezializatuak eta espezializatugabeak, eta abar).

IRTENBIDE ZIRKULARRAK ENPRESETAN:

Udalerriko hainbat enpresek, azken urteotan, euren **ekoizpen-prozesuetan irtenbide zirkularrak** bilatzeko hainbat proiektu eta soluzio garatu dituzte. Horren erakusgarri da, besteak beste, industria jarduerako eta makinariaren azpi-sektoreko enpresen jarduna. Horien artean aurkitzen dira Addilan eta Ona enpresak (Ihobek idatzitako Euskadiko produktu zirkularren katalogoan jasota daude, adibidez, Addilan enpresak fabrikatutako makinak, ingurumen-eragina gutxitzea eta material-kontsumoaren murrizketa bermatzen dutenak, eta Ona enpresak diseinatutako Eco iragazte-teknologia, atmosferara igorritako isuriak murriztea, garraiatzeagatiko karbono-aztarna eta enbalaje-materialaren gutxitzea eta bizi-erabilera mugagabea ahalbidetzen dituenak).

Industria-sektoreko enpresez gain, **berrikuntza beste sektore batzuetan ere bultzatzen da eta horren adierazgarri dira ere turismo arloko enpresak**. Urkiola landa-garapen elkarteak 2019 urtean abiarazitako “**Horizonte 2023: Durangaldeko Turismo Plana**, Estrategiaren eta Marketinaren alorrekoa” planak ezartzen du Durangaldeak duen erronka estrategikoa turismoa modu orekatu eta jasangarrian garatzea dela, eskualdeak dituen gaitasunen baitan eta horretarako, besteak beste, **lehiakortasuna hobetu beharra** dagoela, **merkatuan erakargarriak izango diren eta eskualdeko nortasuna nabarmenduko duten produktuak eta zerbitzuak sortuz eta eragile turistikoaren arteko borondatezko lankidetzak ahalbidetuz**. Ildo honetan, Durangaldeak eskala txikiko estrategiak proposatzen ditu, nitxoei begirakoak, xede-talde indibidualizatu eta zorrotz bati zuzendutakoak.



HAUR, GAZTE ETA NERABEAK

Durangoko biztanleriaren % 14,2 inguruk 14 urte baino gutxiago ditu.

Durangoko Udaleko kultura, hezkuntza, gazteria eta kirol arloaren helburu nagusia gazteen eta, oro har, komunitatearen ongizate fisiko eta mentala sustatzea da, kirola eta aisialdi-jarduerak eginez. Hauek dira sailetik martxan dauden programa eta zerbitzuak: **Partehartzea sustatzeko programak**, Aisialdi programak, Gaztegunea, Ludoteka, Jolas librerako gunea, Musika entsegarako lokalak, Udaro, Gazte KZK programa, Gaztedi Durangaldea, Jolas Eguna, Zuhaitz landaketak, Mugarri eguna,...

Intxaurrondon sortu barri den espazioan gazte informazio bulegoa, elkarteek erreserbatu ahal izateko zenbait gela, gaztelekua eta ludoteka abiarazi dira.

Gizarte zerbitzuetatik arrisku edo babesgabezia egoeran egon daitezkeen haur eta nerabeen familiei zuzenduta eta Durangaldeko Mankomunitateko gizarte zerbitzuen eskutik, hainbat zerbitzu eskaintzen ditu.

ADINEKO PERTSONAK

Durangoko biztanleriaren % 19k 65 urte baino gehiago ditu. **Durangoko biztanleria zaharkitzen ari dela ikusten da zahartze eta gainzahartze-indizeen (65 eta 75 urte eta gehiagoko biztanleak) bilakaera begiratzean. Mendekotasun demografikoko indizeak ere gora egin du.** Hala ere, bi indizeak erkidegoko eta Bizkaiko indizeen azpitik kokatzen dira. **Etorkizunean, zahartze eta mendekotasun indizeak nabarmen haztea espero da eta honek hainbat ondorio ekarriko ditu.**

Egoera hau ikusita Udalak behar ezberdinei erantzun egokia emateko sortzen eta garatzen ditu zerbitzu eta programa berriak.

ANIZTASUN FUNTZIONALA DUTEN PERTSONAK

Dibertsitate funtzionala duten pertsonen dagokienez, gizarte-ekintzaren arloan lau ildoren bidez esku-hartzen da: Lankidetzak-hitzarmenak elkarte eta ikastetxeekin; Dibertsitate funtzionala duten haurrei arreta emateko berariazko programak garatzea; Aniztasun funtzionala duten haurrak bertan sartzea errazteko esku hartzen duten programak (Uda topera programa/ Ludoteka eta Gazteleku zerbitzuak) eta Sentsibilizazioko prestakuntza-programak:

Durangoko Udaleko kultura, hezkuntza, gazteria eta kirol arlotik bideratzen diren programa eta zerbitzu guztietan dibertsitate funtzionala dutenen presentzia bermatzen da.



HELBURUA

Udalerriko desberdinkeria desagertzea.



Irudia: Boluntario linguistikoa. Durangoko Udala

ATZERRIAN JAIOTAKO PERTSONAK

Durango biztanleria atzerritarrak gora egin du azken urteetan eta gaur egun biztanleriaren % 8,3a hartzen du. Ehuneko hau erkidegoa eta Bizkaiko datuen pare dago.

Udaleko Immigrazio saila atzerriko etorkinen harreraz eta hauen gizarteratzeaz arduratzen da eta harrerari dagokionean, honako zerbitzu eta baliabideak eskaintzen dira sailetik: Durangonbizi.net baliabide-gida; Atzeritartasunari buruzko informazio-saioak; Atzeritartasunaren arloko orientazio-programa; Nazionalitate-azterketetarako prestakuntza; Euskara indartzeko saioak; Boluntario linguistikoa: "Hitz egidazu"; Esku-hartze psikosozialeko programa; Emakumea eta kultura aniztasunari buruzko tailerra, eta Emakumeen genitalen mutilazioa ekiditeko programa.

ETXEBIZITZA BABESTUA

Etxebizitza babestuaren eskariak gora-beherak izan dituen arren, 2021ean Durango 1.000 biztanleko 41,8 eskabide erregistratu ziren Etxebiden, EAEko eta Bizkaiko datuen azpitik kokatuz.

2009an Durangoko **Udala gazteen alokairuak diruz laguntzeko deialdiak egiten hasi zen**. Orduetik hona, urtero argitaratu ditu diru laguntzak. 2022 urtean 42 onuradun egon ziren. Bataz besteko dirulaguntza 1.344, 81 €koa izan zen.

2013 urtetik hona Durangoko Udalak Babes Ofizialeko 591 etxebizitza sustatu ditu (azken obra-lizentzia 2023an eman du eta horri esker 102 etxebizitza eraikiko ditu San Fauston -hori da momentuz azken sustapena-) eta horietatik gehiengoa erregimen orokorreko babes ofizialeko etxeak izan dira (etxebizitza sozialak, aldiz, 26 izan dira).



HELBURUA

Hiriak eta giza-kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak lortzea.

HIRI-LURZORUAREN EGITURA

Lurzoruaren kalifikazio orokorra: % 15,3 egoitzarako lurzorua dira (gehiena, % 68,7, bizitegiarako hiri-lurzoru finkatua), % 6,9 jarduera ekonomikoetarako lurzoru*, % 22,3 sistema orokorrak eta % 54,5 hiritartu ezin daitekeen lurzoru da (gehienbat basoez osatuta).

*Ekipamenduetarako sistema orokorrak, eremu libreak, azpiegituretarako lurzoru, ibai-ibilguak.

Egun, Durangoko Udala Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (aurrerantzean, HAPO) izapidetzen ari da (Diagnostikoaren eta Aurrerakinaren faseak osatuta daude jada) eta une honetan 3. Fasean murgilduta dago (irizpideen eta helburuen onarpena).

Esan daiteke, hiri-egiturari eta -bilbeari dagokienez, Durangoko hiri-eredua bat datorrela, neurri handi batean, hirigintza jasangarriaren printzipioekin; izan ere, **hiri trinkoa** da (etxebizitza-indize onargarriak ditu hektareako), **jarraitua** (oro har ez dago zatiketarik hiri-egituran eta -bilbean), **eta konplexua** da (hurbileko merkataritza- eta ekipamendu-maila eta -kantitate ona dago, askotariko erabilerak daude, besteak beste).

Herritar gehienak herri gunean eta ondoko auzoetan bizi dira, familia anitzeko blokeetan, nahiz eta badauden ere familia bakarreko edo bi familiako etxebizitzek osatutako erremuak ere.

Azken horien artean daude, esaterako, Tabirabide edo Sanrokebide kaleetan eta bertatik gertu dauden etxebizitza ugari eta landatar izaera duten auzuneetako eremuak (hala nola; Larrinagatzuko etxebizitzak, Santa Lutziako eta inguruko etxebizitzak).

GARRAIO PUBLIKOA:

7 dira gaur egun udalerritik igarotzen diren Bizkaibuseko zerbitzuak. 2022ko bidaien kopuruari erreparatuz gero, lerro horietatik bidai gehien egin zituen "Bilbao-Durango-Elorri (autopistatik)" izan zen (529.902 bidai) eta gero "Bilbao-Galdako ospitalea-Lemoa-Durango-Elorri" (518.142 bidai).

PARKEAK, LORATEGIAK ETA EREMU BERDEAK:

Hiriguneko parke, lorategi eta berdeguneek hartzen duten **azalera 299.453 m² ingurukoa da** Durangon; hau da, 10,8 m²/biztanleko 2022 urtean (datu hau EAEko udalerrien batez bestekoaren azpitik kokatzen da, erkidego mailan 15,6 m²/biztanle izan baitzen).

HAPO, Energia eta Klimaren Tokiko Plana eta Udalaren azpiegitura berdearen plana idazteko prozesua baliatu beharko lirateke azalera hori handitzeko aukera gisa.



HELBURUA

Hiriak eta giza-kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak lortzea.

NATURA- ETA KULTURA-ONDAREA:

Urkiola parke naturalak duen azaleraren zati bat Durangoko udalerrian kokatzen da eta Natura 2000 Sarearen parte da.

Durangok **ondare kultural eta arkeologiko aberatsa** du, Eusko Jaurlaritzaren ondare kulturalaren multzoan barneratuta dagoena. Ondorengo irudian ikus daitezkeen moduan, ondare hori kultura-ondasun izendatuak (eraikitako ondarea, arkeologia-ondarea, ondasun arkitektonikoaren mugaketak eta ondasun arkeologikoen mugaketak) eta bestelako ondasunek osatzen dute (eraikiak eta arkeologikoak).



Irudia: Durangoko hirigune historikoa eta eraikitako ondarea osatzen duten elementuak.

GeoEuskadi bisorea (Eusko Jaurlaritza)

KUTSATUTA EGON DAITEZKEEN LURZORUAK:


Durangon kutsatuta egon daitezkeen lurzorua industria-jarduerei, hondakindegiei eta betelanei dagozkie eta hiri-eremuan kokatzen dira batez ere (**gehienbat industria-jarduerei lotutako kokalekuak dira**). Lurzorua kutsatu dezaketen jarduera edo instalazioak dituzten lurzoruen **azalera 42 hektareakoa da (121 kokaleku)**, udalerriko azalera erabilgarri osoaren %



HELBURUA

Hiriak eta giza-kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasagarriak lortzea.

9a, gutxi gorabehera, hain zuzen (EAEko batez bestekoaren azpitik kokatzen da Durangoko azalera -EAEko lurzorua: % 15,6. 2018 urtea).



Irudia: Durangon lurzoria kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten lurzoruen inbentarioa (2021).
GeoEuskadi (Eusko Jaurlaritza)

Etorkizuneko erabileretarako berreskuratu den azalera: adierazgarria da 2014 urtetik 2019 urtera bitartean gertatutako bilakaera; izan ere, **% 37 hazi zen induskatu edo berreskuratu zen lurzoruen azalera** (2014an azalera 40.125m² izan zen bitartean, 2019an 54.944 m²ra heldu zen berreskuratutako azalera).

ARRISKU NATURALAK, TEKNOLOGIKOAK ETA BESTELAKO ARRISKUAK:

Uholdeak, arrisku sismikoa, errepide eta trenbide bidezko salgai arriskutsuen garraioari lotutako istripu-arriskua, arrisku erradiologikoa eta baso-suteen arriskua dira aintza hartzen diren ohiko arriskuak eta EAE mailako Larrialdi Plan Berezien bidez araututa daude.

Udalerriak **ibai-uholdeak** jasan izan ditu une ezberdinetan, Ibaizabal eta Mañaria ibaiak gainezka egin dutenean. Historikoki udalerriak jasan izan dituen ibai-uholdeen gertaerez gain, duela gutxi



HELBURUA

Hiriak eta giza-kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak lortzea.

Durangon izan ziren uholdeak, 2021eko neguan izandako denboralearen ondorioz hain zuzen ere. Bi egunetan 120 litro baino gehiago utzi zituen Durangaldean, eta lokalak eta trastelekuak urez bete ziren.

Aldi berean, udalerriak **euri-uholdeak** jasan izan ditu azken urteetan. Uholde horiek iraupen laburreko prezipitazio handiekin dute lotura. Uholde mota horien adibide dira 2013an gertatutakoak: tamaina handiko ur-putzuak sortu ziren hirigunean, eta besteak beste merkataritza-lokalei eragin zieten.

Baso-suteak gertatzeko arriskua erdibidekoa da Durangoren kasuan, udalerriak arrisku honekiko duen sentikortasuna Durangok arrisku honen aurrean duen egokitzeko gaitasunari esker arintzen baita. Edonola ere, arrisku hori zuhaitzi eta baso-kopuruarekin lotura du, batez ere Urkiola parke naturalean kokatuta daudenak. Arrisku honi aurre egiteko asmoz, izaera publiko-pribatua duen baso-plana badago eta horri esker sute-arriskua gutxitzeko jarduera ezberdinak gauzatzen dira (bideen eta pisten mantenu-lanak, esaterako).

Beste mehatxu edo arrisku batzuen aurreko arriskua, hala nola, arrisku sismikoa, teknologikoa, eta salgaien errepideko garraioari lotutako isurketak, txikia da Durangon.

HIRIGINTZA JASANGARRIAREKIN LOTURA DUTEN PROIEKTU ESANGURATSUAK:

- **Aramotz auzoa eraberritzea:** berrurbanizazio-proiektu bat da eta Udalak obrak aurrera eramateko lehiaketa publikoa antolatu du 2023 urtearen hasieran eta lanen iraupena 18 hilabetekoa izango da. Birgaitze integralaren planteamenduan **auzoaren inguruko urbanizazio obrak, Larrinagatxu errekaaren desbideratzea, eraikinak birgaitzea eta Auzo Bulegoaren eraikuntza** jasotzen dira. Era berean, esku-hartzearen funtsezko zati gisa, Larrinagatxu errekastotik bideratuko da. Gaur egun, auzoko erdiko patiotik igarotzen da erreka, eta mendebaldeko perimetrora desbideratuko da. Espazio hori berreskuratuko da, trazaduraren gainean uraren lorategi bat sortzeko.



HELBURUA

Hiriak eta giza-kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak lortzea.



Irudia: Aramotz auzoaren etorkizuneko eremu bat. Durangoko Udala.

- **Natura herrian integratzeko proiektu estrategikoa:** 2022 urtean Udala Hiri-Azpiegitura Berdearen Estrategia prestatzeari ekin zion. Natura hirian integratzeko eta eskaintzen dituen ingurumen-, ekologia- eta gizarte-onurak bermatzeko plan estrategikoa izango da. Proiektuaren **helburua da Durangorako hiri-azpiegitura berdearen estrategia garatzea Durangaldeko herritarrekin**, eta, beraz, 5 bloke nagusi egituratu dira: kaleetako zuhaiztia, berdeguneak, gune grisak (aparkalekuak, espaloiak, plazak, etab.), ibaiak eta lorezainak. Horrela, proiektu pilotu bat jarriko da martxan Astolara bidean eta proiektu teoriko bat Zuhatzola parkean. Erronka berri hori behar-beharrezkoa da Durangok klima-aldaketagatik bizi dituen arazoei aurre egiteko, baita etorkizunean bizi ditzakeenei ere, hala nola uholdeei, bero-uharte efektuari, airearen kalitateari eta ingurumen-osasunari (naturarekin kontaktuan dagoen beroari, zaratari eta ongizateari lotuta).




HONDAKINEN SORRERA ETA KUDEAKETA

Durangon sortutako **etxeko eta merkataritzako hondakinak**, Bizkaiko udalerri gehienetan bezala, **gaika biltzen dira edukiontzi-sistemaren bidez** (gaika bildu beharreko zatikiak: papera eta kartoia, ontzi arinak, beira, pilak, sukaldeko olioak, ehunak, biohondakinak, errefusa). **edukiontzietan sartu ezin diren hondakinentzako berariazko zerbitzu osagarri bat dago** (igande, astearte eta ostegunetan, 20: 00etatik aurrera, jasotzeko eskaera aurretiaz eginez), eta herritarren eta gremio txikien eskura ere **garbiguneak jartzen dira (5 puntu garbi, alde zaharrean gaikako bilketa egiteko garbigune mugikorak eta Motorretako Garbigunea)**, besteak beste, hondakin arriskutsu txikiak eta etxeko obra-lan txikietako hondakinak eramateko.

Arloko araudiak ezartzen duen bezala kudeatu beharreko beste hondakin mota batzuk badira, besteak beste, industria-hondakinak, abeltzaintzako hondakinak, inausketa-hondakinak eta eraikuntza- eta eraipen-hondakinak.

Durangoko Udalak biltzen dituen hondakinak ondoren lurraldeko hainbat azpiegituren bidez kudeatzen dira: konpostaje-plantak (Igorreko instalazioak Durangaldean sortutako biohondakinak tratatzen ditu), Bizkaiko ontziak eta ontzi-hondakinak bereizi eta sailkatzeko planta (Amorebieta-Etxanon kokatua), hondakin transferentzia-planta (Bizkaian 6 daude eta horietako bat Durangon dago), tratamendu biologikoko planta, Zabalgarbiko balorizazio energetikorako instalazioa, etab.

DURANGOKO HIRI-HONDAKINEN EBOLUZIOA (2010-2022)



Iturria: Durangoko Udala

12.

HELBURUA



Kontsumo eta ekoizpen modalitate jasagarriak bermatzea.

Durangoko **hiri-hondakinen sorrerak** gorabeherak izan ditu urteetan, baina **2020 urtetik aurrera hondakinen sorrerak beheranzko joera duela ikusten da (% 3,2 murriztu da 2020-2022 urteen artean). Biztanleko eta urteko hondakinen sorrera 334 kg/bizt-ekoa izan zen 2022an**, Bizkaiko eta EAEko batez bestekoa 557 kg/bizt-en eta 493 kg/bizt-en kokatzen zen bitartean.



Irudia: minipuntu garbia (Durangoko Udala)

HIRI-HONDAKINEN GAIKAKO BILKETA

Hiri-hondakinen **gaikako bilketaren tasa % 36koa** izan zen 2022an. Aipatzekoa da biohondakinak 2020an hasi zirela biltzen. **Gaikako bilketa-tasa handiena duen zatikia papera eta kartoia da** (kaleko edukiontzien eta saltokiei zuzendutako atez ateko zerbitzuaren bidez). Biohondakinen gaikako bilketak nabarmen egin du gora zati horren bilketa zerbitzuan jarri zenetik: 2020an, biztanle bakoitzeko 5,8 kilo biltzen ziren urtean, eta, 2022an, berriz, 13,5 kilo/bizt./urtean.

Garbigunean bildutako hondakinei dagokienez, zatikirik handiena (guztizkoaren % 60 baino gehiago) **eraikuntza- eta egur-hondakinak dira**. Etxeko konpostajeari dagokionez, gaur egun ez dago autokonpostagailuen eta beren etxeetan konposta egiten duten familien erregistrorik.

13.




HELBURUA

Klima-aldaketari eta haren ondorioei aurre egiteko premiazko neurriak hartzea.

ARINTZEA:

Udalak datuak eskuragarri dituen urtetik aurrerako bilakaera behatuz gero, 2007 urtean BEG isurien kopuru handienara heldu zen udalerria (99.143 tona CO₂ baliokide) eta 2010 urtera bitartean beheraka bat jasan zuen. Ondorengo urteetan, aldiz, bilakaera gorabeheratsua izan da. Aipatu behar da 2006tik aurrera Durangoko biztanleen kopuruak gora egin duela urtero eta beraz, biztanleen hazkundea progresiboa izan den arren, BEG isuriek ez dutela orokorrean joera hori mantendu. **2006tik 2020 urtera BEGen emisioak % 31,5ean murriztu dira.**



Iturria: Durangoko emugi (Udalsarea 2030), Durangoko Energia eta Klimaren aldeko Ekintza-plana 2022 (Durangoko Udala) eta "Euskal Udalerriek GJHei egiten dieten ekarpena. II. Txostena" (Ihobe).

Garraioaren sektorea da Durangon isuritako berotegi-efektuko gasen erantzule nagusia (BEG guztien % 62), eta haren atzetik datoz bizitegi-sektorea (BEGen % 21), zerbitzuen sektorea (% 13), hondakinen sorrera (% 4,1) eta lehen sektorea (% 0,2). Ez dago industria-sektoreari lotutako emisiorik.



HELBURUA

Klima-aldaketari eta haren ondorioei aurre egiteko premiazko neurriak hartzea.

EGOKITZEA

Klima-aldaketaren ondoriozko arriskuen elkarrekintzak eta natura- eta giza sistemen esposizioak eta urrakortasunak baldintzatzen dute klima-arriskua. Osagai horiek honela definitzen dira (IPCC, 2014):

- **Klima-mehatxua:** natura- edo giza-jatorriko joera edo inpaktu fisiko bat (adibidez, temperatura edo prezipitazioa aldatzea), zeinak biziak galtzea, lesioak edo osasunean bestelako ondorio negatiboak eragin ditzakeen, bai eta kalteak eta galerak ere jabetza, azpiegitura, bizibide, zerbitzu-prestazio eta ingurumen-baliabideetan.
- **Mehatxuarekiko esposizioa:** eragin negatiboa jaso lezaketen tokietan pertsonak, bizibideak, espezieak edo ekosistemak, zerbitzuak eta ingurumen-baliabideak, azpiegiturak edo aktibo ekonomiko, sozial edo kulturalak egoteari egiten dio erreferentzia.
- **Aztertutako ingurunearen kalteberatasuna** (urrakortasuna), kaltearekiko sentikortasun edo sentsibilizazioak eta egokitzeko edo erantzuteko gaitasunik ezak osatzen dutena. Urrakortasuna eragin negatiboak izateko joera modura definitzen da.
- **Arriskua**, mehatxuaren, esposizioaren eta kalteberatasunaren ondoriozkoa. Arriskua honela definitzen da: zerbait baliotsua arriskuan dagoen eta zer gertatuko den zalantzazkoa den egoeretan ondorioak gertatzeko dagoen probabilitatea. Kontuan hartu behar da «zerbait baliotsu» horren barruan pertsonak ere sartzen direla. Maiz, honela adierazten da: joera edo gertaera arriskutsuak gertatzeko probabilitatea, horrelakoak gertatuz gero izango diren ondorioez biderkatuta. Egoeraren nolakotasunaren, esposizioaren eta urrakortasunaren interakzioak sortutako ondorio dira arriskuak.

Gaur egungo arriskuari dagokionez, **ibai-uholdeak dira arrisku gehien sortzen dutenak**, kalteberatasun, esposizio eta mehatxu handia dutelako. Durangoren sentikortasun-altua **udalerriaren barruan uholde-arrisku potentzial nabarmena duen eremu bat egoteari** egozten zaio. Eremu hori Ibaizabal ibaia eta, Mañaria, Sarria eta Zaldu errekek gainezka egiteko arrisku handikotzat jotzen da (10 urtetik beherako itzulera-aldia duten ibaiak). **Jarraian, bero-boladak, euri-uholdeak eta suteak daude**, tarteko kalteberatasunarekin eta esposizio/mehatxu handiarekin. Azkenik, lehortei eta lur-jausiei lotutako arriskua dago; izan ere, bi kasuetan kalteberatasuna txikia da eta esposizioa/mehatxua aldatu egiten da mehatxu bakoitzerako (lehorteetan handia eta lur-irristatzeetan ertaina).

13.



HELBURUA

Klima-aldaketari eta haren ondorioei aurre egiteko premiazko neurriak hartzea.

UDAL-JARDUERA KLIMA-ALDAKETAREN AURREAN:

Udalak 2022an idatzitako Energia eta Klima Plan bat du, klima-aldaketa arintzeko eta haren inpaktuetara egokitzeko helburuak eta ekintzak jasotzen dituena. Era berean, nabarmentzekoak dira Durangoko **sare berdearen paisaia babesteko plana** abian jartzea, **udalerriaren erresilientzia hobetzeko Faktore Berdea tresna garatzea**, eta udal-eraikin eta - ekipamenduetan **energia berriztagarriak modu progresiboan** ezartzeko planaren idazketa.

15.



HELBURUA


Basoak modu iraunkorrean kudeatzea, basamortutzearen aurka borrokatzea, lurren degradazioa gelditzea eta biodibertsitatearen galera ekiditea.

UDALERRIKO LANDAREDIA:

Landarediari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren Landaredi-maparen arabera (2007), **udalerriko azaleraren zatirik handiena baso-landaketez osatuta dago**. Horiez gain, Durangon ere basoak (batez ere harizti azidofiloa eta harizti-baso misto atlantikoa da, ibar-basoetan aurki daitekeena), sastrakak (gehienbat Txilardi-otadi-iratzedi atlantikoa) eta bestelako landaredia (oraindik baso mistoa sortzeko aurre-fasean dauden landaredia-eremuak dira, andeatutako landaredia duten zonaldeetan daudenak) aurki ditzakegu.

2021eko EAEko Baso-mapetan jasotakoari erreparatzan badiogu, **bertakoak ez diren espezieez osatutako landaketek hartzen dute baso-masaren zatirik handiena Durangon**.

Udalerriko azalera osoaren % **54,8 lurzoru urbanizaezina da**. Bertan, eremurik handiena basoei eta zuhaitzen landaketei dagokie (302,3 hektarea. Lurzoru urbanizaezinaren % 51,5). **Babes Bereziko Eremuak udalerriko azalera osoaren % 18,3 hartzen du**.



Iturria: Udalplan, 2022.

BABESTUTAKO EREMUAK:

Urkiola parke naturala EAE mailako babes-maila duen eta Durangoko hego-mendebaldean kokatuta dagoen **leku babestua**. Era berean, Urkiola Kontserbazio Bereziko Eremua da



HELBURUA

Basoak modu iraunkorrean kudeatzea, basamortutzearen aurka borrokatzea, lurren degradazioa gelditzea eta biodibertsitatearen galera ekiditea.

(aurrerantzean, Urkiola KBE), Europa mailako sare ekologikoa den Natura 2000 Sarean sartuta dagoena. **Urkiola KBE 2016 urtean izendatua izan zen eta 6.020,5 hektareako azalera hartzen du orotara. Azalera horren % 1,9a Durangoko udalerrian kokatuta dago.** Eskualdeko ikuspegi batetik, Durangoz gain, Urkiola KBE Abadiñon (KBEaren azaleraren % 24), Amorebieta-Etxanon (KBEaren azaleraren % 1,8), Atxondon (KBEaren azaleraren % 10,2), Izurtzan (KBEaren azaleraren % 0,6) eta Mañarian (KBEaren azaleraren % 20,9) ere kokatuta dago.



Irudia: mendi gailurrak (Urkola). Durangoko Turismo bulegoa.

MEHATXATUTAKO FLORA ETA FAUNA:

Udalerriko mugetan ez da Mehatxatutako fauna-espezierik, ezta landaredia-espezierik ere antzeman. Bestalde, **aipagarria da Urkiola hegazti nekrofagoen interes bereziko eremua dela eta baita horien elikatzeko babes-gune ere** (EAEen Batasunaren Intereseko Hegazti Nekrofagoak Kudeatzeko Baterako Plana aplikatzen da eta Bizkaiko Foru Aldundiak 2015 urtean onartu zuen, ugatza (*Gypaetus barbatus*), sai zuria (*Neophron percnopterus*) eta sai arrea edo arrunta (*Gyps fulvus*) espezieei buruzkoa, hain zuzen). Aldi berean, **Mañaria erreka Interes Bereziko Eremu gisa katalogatuta dago bisoi europarrarentzat, eta Larrinagatxu erreka Hobetu Beharreko Tarte moduan izendatuta dago** EAEko Espezie Mehatxatuen Katalogoan barneratuta dagoen **espezie horrentzat** (galtzeko arriskuan dagoen espezie gisa jasota dago bisoi europarra eta 2006 urtean onartutako Bisoi Europarraren Kudeaketa Plana aplikatzen zaio).

Durangon, halaber, **interes berezia duten habitatak** ere aurki ditzakegu eta 9 dira, zehazki, Habitaten Zuzentarauan barneratutakoetatik udalerrian topa daitezkeenak. Gainera, aipatu 9 horietatik **2 lehentasunezkoak dira**: *Nardus* espezieko belar-formazioak, espezie ugariarekin,

15.



HELBURUA

Basoak modu iraunkorrean kudeatzea, basamortutzearen aurka borrokatzea, lurren degradazioa gelditzea eta biodibertsitatearen galera ekiditea.

mendialdeetako substratu silizeoen gainean daudenak, batetik, eta *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* espezieetako baso alubialak, bestetik.

HIRIKO AZPIEGITURA BERDEA:

Hiri-eremuari dagokionez, **eremu naturalak orohar urriak** direla eta **Durangoko Hiri Azpiegitura Berdearen Estrategia** idazteko fasean Udalak antolatutako parte-hartze prozesuan pertzepzio hori ere izan zutela bertan parte hartu zuten herritarrek. Ildo honetan, herritarren ikuspuntutik, interes handiena eragin zuen gaia zuhaitzena izan zen eta gaur egun Durangon **zuhaitzik gabeko kale asko eta/edo gehiegi daudelaren sentsazioa jaso zen**. Ondoren, berdeguneen gaia izan zen aipatuena (parte-hartzaile guztiek nabarmendu zuten **herriko berdegune gehienak soropilezkoak** direla eta helburua soropila eta belardiak parekatzea edo belardiak dituzten berdeguneak nagusitzea da). Eremu grisena zuhaitzen eta berdeguneen ostean, ekarpen eta interes gehien jaso zuen gaia izan zen. Adostasun-maila altuaz nabarmendu zen **Durangon gune gris asko edota gehiegi** daudela eta plazetan, kaleetan, aparkalekuetan, urbanizazio berrietan zein beste eremu batzuetan aurki daitezke eremu gris horiek. Egoera honen aurrean, estrategiaren helburua, adostasun handiarekin, herrian lurzoru iragazkorra nagusitzea izan behar da. **Ibaien kasuan**, Mañaria ibaiari dagokionez, **ibilgua hobetzeko hainbat neurri bildu ziren** parte-hartze prozesuan. Ibaiei dagokienez, % 75eko ibilgu iragazkorra lortzea da Estrategiaren helburua. Hiriguneko **lorontzien** kasuan, helburua lorontzi “biziak” eta handiak ezartzea izan beharko litzatekeela adierazi zen.



Irudia: Hiri Azpiegitura Berdearen Estrategia. Durangoko Udala



BIZIKIDETZA ETA SEGURTASUNA:

Durango herri segurua dela esan daiteke, bertan erregistratutako delitu-indizea **mila biztanleko 27,8 delitura iritsi baitzen 2021 urtean, EAEko eta Bizkaia mailako delitu-indizeetatik behera**. Gainera, bilakaeraren joera beherakorra da 2003-2021 artean. **Trafiko istripuek ere nabarmen behera egin dute Durangon**, 2020an mila biztanleko 0,6 istripu erregistratu zirelarik, erkidego eta Bizkaiko datuen azpitik kokatuz.

Durangoko Udalak **“Mugikortasun Segurua Durango” bide-hezkuntzako programa** abian du, belaunaldi ezberdinetako herritarrak bide hezkuntzan eta jarrera egokietan hezteko.

Udaleko Berdintasun Sailak emakumeentzako **“Hiri Debekatuaren II. Mapa”** egitasmoa aurrera eramane zuen 2010ean.

ELKARTEGINTZA:

Durangok elkarte-sare oparoa du, guztira 296 elkarte daude izen emanda Eusko Jaurlaritzako elkartearen erregistroan. Elkarateek herritar dinamiko eta boluntario asko mugitzen eta aktibatzen dituztela esan daiteke eta euren ekarpenaren bidez, Durango aberasten dute elkartegintza sustatuz.

Elkarateen gehiengoa elkarte kulturalak eta kirol esparrukoak dira (bi elkarte moten artean elkartearen % 60a hartzen dute).

PARTAIDETZA, GARDENTASUNA ETA KONTU EMATEA:

Udalaren antolaketarako eta udal sailen arteko koordinaziorako udal gobernu hiru parte-hartze organo edo batzordeetan banaturik dago gaur egun: **Lurraldea, Antolaketa eta Herrigintza**.

Herritarren partaidetza ahalbideratzen duten partehartze eta kontsulta organo irekiak daude: Plangintzako aholku batzordea, Euskararen udal kontseilua, Udaleko eskola kontseilua, Haurren kontseilua, Berdintasunerako udal kontseilua eta Baserritarren merkatuaren kontseilua.

Udalak “Partehartu Durango!” partaidetzarako ataria prestatu du. Besteak beste, honako proiektuak ireki dira herritarren partaidetzara 2022an zehar: Durangok natura herrian integrazteko proiektu estrategikoa; Bidegorriak elkartu eta luzatzeko proiektua;...

2019 urtetik **aurrekontu parte-hartzaile** prozesua irekita dago durangar guztientzat, hauek Udalaren aurrekontuaren zati bat zertan erabil daitekeen proposatu dezaten.


16.



HELBURUA

Udalerriko desberdintasunak murriztea.

Gardentasunari, gobernu irekiari eta herritarren parte-hartzeari buruzko araudi organikoa du eta bestalde, herritarrek udal informazio guztia ezagutzeko eta duten eskubidea bermatzeko mekanismoak martxan jarritz Udaleko web orriko “Gardentasuna” ataria sortu da.



Irudia: Partehartze ataria Udal web gunean. Durangoko Udala



HELBURUA

Ezarpen-baliabideak sendotzea eta Garapen Jasangarrirako Munduko Ituna biziberritzea.

LANKIDETZARAKO SAREAK ETA PROGRAMAK:

Durangoko Udala Euskal Fondoaren parte da, eta, beraz, bere helburuak partekatzen ditu eta bere zuzendaritza-batzordeak onartutako urteko proiektuak babestu eta finantzatzen ditu. Euskal Fondoko kide diren 114 udaletatik 38 Bizkaiko udalak dira (hau da, udal guztien % 33,3). Euskal Fondoak 2021 urtean bideratutako lankidetzarako funtsen % 83a Euskadin egoitza duten Gobernu Kanpoko Elkarleen bidez bideratu ziren. Iturria: "Euskal Lankidetza zenbakietan 2021" txostena. Euskal Lankidetza Publikoaren Ataria.

Durangoko Udalak garapen jasangarrirako bestelako aliantza batzuen kide ere bada (Euskal Fondoaz gain, beste 5 aliantza-mota gehiago); tartean, Udalsarea 2030 (udalerri jasangarrien euskal sarea), zeinarekin 2022 urtean lankidetza-hitza berritu baitzuen udalak. Iturria: Durangoko emugi.



Irudiak: Udalsarea 2030. Eusko Jaurlaritza

Durangoko Udalak, Durangaldeko biztanleek herri eta jende behartsuenekin duten elkartasunaren adierazpen gisa, **Garapenerako Lankidetzaren politika publikoa mantentzen du**. Horrela, proiektu eta bestelako ekimen ezberdinak antolatzen ditu lankidetzaren arloan. Tresnarik garrantzitsuenak, bideratutako baliabideen bolumenagatik, Durangaldeko biztanleek osatzen dituzten **Gobernu Kanpoko Elkarrekin sinatutako hitzarmenak** dira, batez ere.

Elkarleen udal erregistroan lankidetza programak eta proiektuak garatzen dituzten Durangoko 4 elkarte daude: Hamadako Izarrak, Río de Oro Durangaldea, Suargi Elkartea, La otra mirada.

Aldi berean, Durangoko Udala Udalsarea 2030en (garapen iraunkorraren aldeko euskal udalerrien sarea) kide aktiboa da.



HELBURUA

Ezarpen-baliabideak sendotzea eta Garapen Jasangarrirako Munduko Ituna biziberritzea.

Azken urteetan udal aurrekontuan izan den lankidetzarako proiektuekin zerikusia duen partidaren portzentajea (hau da, udal aurrekontu osotik zenbat diru bideratzen den garapenerako lankidetzarako proiektuetarako) ezberdina izan da urtearen arabera. Horrela, 2019tik 2022ra udal aurrekontuei erreparatuz, 2019 urtea izan zen portzentaje altuena lortu zen urtea:

	Udal aurrekontu osoa (€)	Lankidetzarako aurrekontua (€)	Portzentajea
2019	30.090.696,65	186.368,55	% 0,61
2020	36.129.518,43	122.038,84	% 0,33
2021	33.872.080,37	148.871,29	% 0,43
2022	38.711.152,89	183.000,00	% 0,47

Iturria: Durangoko Udala



HELBURUA

Hizkuntza eta kultura garapen pertsonal eta sozialaren ezinbesteko faktore gisa.

KULTURA ANIZTASUNA:

Durangoko Udalaren kultura sailak urteroko kultura-programak antolatzen ditu eta hainbat entitate eta eragilek euren proiektuak aurrera ateratzeko azpiegitura kulturalen kudeaketaz arduratzen da.

Durango Kulturaz Blai (DKB!) mugikorretarako aplikazio sortu zen, Durangoko kultur eskaintza guztia bildu eta erakusteko

Durangoko Udaleko Kultura Sailak irabazi asmorik gabeko entitate eta elkarteei azpiegitura eta baliabide ekonomikoak eskaintzen dizkie. Besteak beste, udal ekipamendu ezberdinetan kokaturiko gelen erreserba zerbitzua eskaintzen die.

Durangok, **kultura zerbitzuak eskaintzeko**, ekitaldi eta emanaldiak burutzeko, musika zein arte plastikoetako formakuntzarako eta arte diziplina ezberdinetako praktikarako eta sormenerako **espazio eta ekipamendu ugari ditu**. **Astarloa Kulturgintza**, zerbitzu publiko bokazioa duen Durango Udaleko Erakunde Autonomoa da. Kultura izaerako guneak kudeatzeko sortu zen eta bere helburua kulturaren sustapena eta herritarren artean ezagutza zabaltzea da.

Durangon Euskal herriko Kultura eta Euskarazko sormenaren erakusleiko nagusienetako bat den **DURANGOKO AZOKA** antolatzen du urtero Gerediaga Elkartek hainbat erakunderen laguntzarekin.



Irudia: San Fausto Jaiei 2022ko kartela. Durangoko Udala



HELBURUA

Hizkuntza eta kultura garapen pertsonal eta sozialaren ezinbesteko faktore gisa.

EUSKARAREN EZAGUTZA ETA ERABILERA SUSTATZEA:

2016ko datuen arabera, Durangoko euskara mailari begiratuta, euskaldunak % 52,9 ziren, ia-euskaldunak % 19,7 eta erdaldunak % 27,4. Euskaldunen datua eskualdearekin alderatuz zertxobait handiagoa zen Durangon, eta Bizkaiko eta erkidegoko batez besteko datuekin duen aldea nabarmena da. **Azken 20 urteetan biztanleriak gora egin badu ere (%17) Durangon euskaldunen kopurua 15 puntutan hazi da.** Biztanleen etxeko hizkuntzari begiratzean badiogu aldiz, **etxean gehien erabiltzen den hizkuntza gaztelera dela nabarmena da (% 65,7).**

Azken 10 urteetan (2011-2021) **Durangoko ikastetxeetan hizkuntza- ereduaren arabeko matrikulazioak nabarmen egin duela D ereduaren alde.**

Udaleko Euskara sailak euskara sustatzeko hainbat ekimen bideratzen ditu Durangoko haur, gazte eta helduei zuzenduta. Aldi berean, **diru-laguntzak esleitzen dizkie euskara sustatzea helburu duten herri mailako entitateei.**

“Durango Euskaraz” Durangoko Euskararen ataria sortua du Durangoko Udaleko euskara sailak egiten dituen ekimen garrantzitsuenei buruzko informazioa argitaratzeko.

Durangoko Udalak, 2010 uztailaren 20an egindako Osoko Bilkuran, **Euskara sustatzeko eta normalizatzeko udal araudia onartu zuen.** Bestalde, **2022 urtearen amaierara arte indarrean egon zen Durangoko Udalaren Euskara Plana (2019-2022) eta Durangoko Euskararen Plan Estrategikoa (EBPN).**

HIZKUNTZA ANIZTASUNA:

Kulturartekotasuna osatzen duten printzipioak aintzat hartuta, etorri berrien hizkuntza aitortu, eta euskarara gerturatzeko hainbat jarduera egiten dira harrera zerbitzuaren barnean.

Sentsibilizazioa eta kulturarteko bizikidetza izeneko zerbitzuari dagokionean, honako programa eta proiektuak eskaintzen dira sailetik: Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako astea; sentsibilizazio-saioak ikastetxeetan, Gazteak eta immigrazioa, Kulturen arteko Liburutegia, Aniztasun-eskola eta Denboraren bankua.

